

## Helburua

**Euskal hiztun edota euskaldun zaharrek Bartzelonan euskaraz hitz egin edo berba egiteko aukera edukitzea.**

## Sarrera

Euskal Etxera euskaraz hitz egiten duten bazkide batzuk etorri ziren Bartzelonan euskaraz hitz egiteko oso aukera gutxi zutela esanez. Hau aintzat hartuta, euskaraz mintzatzeko taldetxo bat sortzea pentsatu genuen duela bospasei urte eta Berba-taldea proiektua sortu genuen.

## Funtzionamendua

Berba-taldean euskaraz berba egiteko erraztasuna daukan jendea elkartzen dugu: B2 mailaren bukaeran edo C1 mailan ari diren ikasleak (euskaltegietako antzinako 8. urratetik gorakoak), bere ikas prozesua amaitu duten euskal hiztunak, ama hizkuntza euskara dutenak...

Talde honen helburu edo objektiboak hauek dira:

- Euskara praktikatzea
- Euskara ez galtzea
- Euskaraz hitz egiteko erraztasuna erreuperatzea
- Beste herri batzuetako euskara ezagutzea
- ...



## Nola eman izena

Interesatuta bazaude, [barcelona@euskaletxea.cat](mailto:barcelona@euskaletxea.cat) helbidean "berba-talde" fitxa eska ezazu. Fitxa bete eta e-postaz bidal ezazu helbide berberera edo Euskal Etxeko bulegoan utzi **urtarrilaren 13tik 27ra**.

Interesatuena zerrenda osatutakoan, bilera edo batzar bat egiteko deialdia zabalduko dugu otsailean. Batzar horretan taldea elkartzeko eguna, lekua eta ordua ezarri nahi ditugu, objektiboak gehitu/aldatu/ kendu..., eta abar.

Oso interes desberdinak badaude, bi talde ere sortu ahal dira, interesen arabera.

## Oharra

Ez nahastu talde hau betiko "Mintzalaguna"rekin (bikote linguistikoa: euskal hiztun/euskaldun zahar bat + euskara ikasle bat). Talde hau euskal hiztunen edota euskaldun zaharren taldea da.